



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, APIRILAREN 27KO 124/1993 FORU DEKRETUAREN BIDEZ ONETSITAKO BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUDIA ALDATZEKO PROIKETUARI ETA MAIATZAREN 28KO 18/2013 FORU DEKRETUARI, FAKTURAZIO BETEBEHARRAK ARAUTZEN DITUEN ARAUTEGIA ONESTEARENARI, BURUZKOA.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, BEZaren eta fakturazio betebeharren alderdi tekniko eta betekizunekin zerikusia duen arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, maiatzaren 22ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.



<b>AURREKARIAK</b>	BALIO ERANTSIAREN GAINEN ZERGAREN ARAUDIA.  FAKTURAZIOAREN INGURUKO BETEBEHARREN ARAUTEGIA.  FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 56/2017 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 5EKOA, ONESTEN DUENA ZENBAIT ZERGA ARAUTEGI ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUA, BALIO ERANTSIAREN GAINEN ZERGAN BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURA EZARTZEKO.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	ALDAKETA TEKNIKOAK ETA BALIO ERANTSIAREN GAINEN ZERGAREN BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURA GARATZEKO BETEKIZUN FORMALEN ALDAKETAK EGITEA
<b>ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	BEHARREZKO DA BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURARI BURUZKO ARADUA BEHAR BEZALA GARATZEKO
<b>HELBURUAK</b>	ARAUDIA KASU DESBERDINEI EGOKITZEA
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b>	EZ DAGO ARAU AUKERA EGOKIAGORIK.